GASTUAK		Aitorturiko betebeharrak	DIRU-SARRERAK		
I KAP	langileak	1.453.497,00	I KAP	Z. zuzenak	1.083.710,00
II	Ohiko ondasun eta	2.196.271,	II	Z. zeharkakoak	39.000,00

2017/03/02



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

	zerbitzuak	42			
III	Interesak	7.500,00	III	Tasa eta bestelako diru-sarrerak	730.609,00
IV	Ohiko transferentziak	470.288,09	IV	Ohiko transferentziak	2.837.181,00
V			V	Ondare diru-sarrerak	9.000,00
VI	Inbertsioak	603.218,66	VI	Inbertsio.-erreal. besterentze	
VII	Kapital transferentziak	20.000,00	VII	Kapital transferentziak	27.500,00
	GUZTIRA	4.750.775,17		GUZTIRA	4.727.000,00

Aurrekontu egonkortasuna ez betetzearen arrazoa da diruzaintzako geldikina erabiltzea. Beraz, 1/2013 Foru Arauaren 5 art.aren 3 paragrafoari jarraiki, kontuhartzaitzak udalaren egonkortasun finantzarioa aztertu eta ebaluatu behar du.

1.5.2.2. Bestalde, "Gastu araua" ez betetzea gauzatu da aipaturiko kreditu aldaketan bariazio bat izan delako gastu konputagarriena, zehazki 2015eko aurrekontuaren kitapenaren gastu likidatuak eta 2016ko gastu likidatuak. Sartuta daude aurreikusitako gastuak kreditu aldaketaren espedientean, %**14,05**; FAk ezarritako helburua 2016rako da gastu konputagarriaren bariazioa %1,8 baino txikiagoa izatea.

Aurreko kalkulua egiteko kontuan zian dira goian aipaturiko erakundearen datu kontsolidatuak eta taula honen arabera:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

GASTU KONPUTAGARRIAREN BARIAZIOA		
a1	Gastu ez finantzarioa 2015 (Kap 1 - 7)	4.161.750,81
a2	Doiketak SEC	0,00
a3	Interesak 2015	8.375,63
a4	Erasandako finantziadun gastuak 2015	158.445,48
a=a1+a2-a3-a4	Gastu konputagarria 2015	3.994.929,70
b1	Gastu ez finantzarioa 2016 (1 a 7 kap)	4.750.775,17
b2	Doiketak SEC	0,00
b3	Interesak 2015	7.500,00
b4	Erasandako finantziadun gastuak 2016	187.200,00
b5	Araudi aldaketaren eragina	0,00
b=b1+b2-b3-b4+b5	2016 gastu konputagarria	4.556.075,17
c=(b/a-1)*100	Gastu konputagarriaren bariazioa (%)	%14,05

Gastu araua ez betetzea eragin du diruzaintzako geldikina erabiltzeak. Ondorioz, 1/2013 Foru Arauaren 5 art.aren 3. atalari jarraituz, kontuhartzaitzak udalaren jasangarritasun finantzarioa aztertu eta ebaluatu behar du.

2.-ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2015eko azaroaren 17koa, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

4. UDALAREN IRAUNKORTASUN FINANTZARIOAREN AZTERKETA ETA EBALUAZIOA.

3.1 2016ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 2015ean likidatutako sarrera arrunten % **40,32** izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2015eko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe

2017/03/02



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

dauden eragiketak eta 2016rako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2016rako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

2015ean likidatutako diru-sarrera arruntak	4.468.106,85€
Zor bizia 2015.12.31n	1.947.932,90€
Abalak	0,00 €
Formalizatu baina xedatu gabeko eragiketak	0,00 €
2014an aurreikusitako amortizazioak	146.490,00€
$\frac{1.947.932,90 - 146.490,00}{4.468.106,85} \% = \%40,32$	

Foru Aldundiak 2016rako ezarritako helburua magnitude hori %80 baino txikiagoa izatea denez, udalak tarte handia du bere egonkortasun finantzarioa betetzeko.

3.2 2015eko Aurrekontu Orokorren kitapenak diruzaintzako geldikin eta aurrezte garbi positiboak ditu.

3.3 2016ko Aurrekontu orokorrek zero defizita du eta bere zor publikoek betetzen ditu otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauak ezarritako helburuak.

3.4 6/2016 kreditu aldaketaren espedientearen gastuek, 2016ko aurrekontu orokorreko kreditu-transferentzia modalitatean, ez dakarte berez, udalak ematen dituen zerbitzuen kostua handiagotzea, ez beste zerbitzu berririk. Gainerako gastuek izaera puntuala eta koiunturazkoa dute. Horrenbestez, udal zerbitzuen egungo kostua mantentzen bada eta udalaren ohiko diru-sarrerak mantentzen badira, epe ertain eta laburrean, udalak ez du beharko neurri berezi edo apartekorik bere egonkortasun finantzarioa bermatzeko.

Horregatik, espedientea aztertu eta ebaluatu ondoren, kontu-hartzaile honek hau

ONDORIOZTATZEN DU

Aurrekontu Orokorren 6/2016 kreditu aldaketa espedienteak, kreditu-transferentzia modalitatean, betetzen du zor publikoaren edo finantzen iraunkortasun helburua, nahiz eta koiunturalki ez duen betetzen aurrekontu egonkortasun helburua eta gastu araua.

2017/03/02



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ibarra, 2016ko abenduaren 30ean.

Kontuhartzailea

Jakinaren gainean gelditzen da Udalbatza.

HIRUGARRENA:

ONARTZEA ESKAERA EGITEA GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIKO MUGIKORTASUNA ETA LURRALDE ANTOLAKETA DEPARTAMENTUARI TOLOSALDEKO LURRALDE PLAN PARTZIALEAN (LPP-PTP)AN IBARRAK BERE PLAN OROKORREAN ANTOLA DEZAKEEN ETXEBIZITZA KOPURUA HANDITZEKO

Tolosaldeko Lurralde Plan Partzialaren aurrerapena 2005eko urtarrilean aurkeztu zen eta, hainbat gorabehera gainditu ondoren, gaur egun, Gipuzkoako Aldundiaren hasierako onarpena jasota dago eta udalerriek egindako helegiteei erantzuna emateko fasean dago.

Horien artean dago Ibarra Udalbatzak aurkeztutako alegazioa, 2014ko apirilaren 8ko ohiko bilkuran onartutakoa, eta alegaturiko arrazoen artean, honako hauek aipatu nahi dira:

- Tolosaldeko Lurralde Plan Partzian jasotako datuak eta helburuak zaharkituta daude, eta berraztertzea edo egokitzea eskatzen da, bizi dugun egoera sozioekonomikoari erantzuna emateko.
- Plan honek Tolosa eta Ibarra eskualde buru izendatzen ditu eta, horretarako, besteak beste, proposatzen du hiri-garapenerako lurzoru bihurtzea herri erdian dauden izaera estrategikoko lur emankorrak (mintegiak eta baratzak), baina ez du proposamenik egiten lur emankor horien galera orekatzeko eskualdean.
- Ez du onartzen Tolosaren eta Ibarraren arteko konpatibilizazio-plana.

Ikusten denez, Ibarra bere alegazioekin LPPa berraztertzea eskatzen du eta, bereziki, udalerrian izan duen eta izan dezakeen eragina hobetu, kontrolatu eta orekatzeko helburua azaltzen du.

2017/03/02



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Lurralde Plan Partzialaren helburu nagusietako bat da Tolosa–Ibarra hiri-eremua sendotzea eta, bi hiri horiek bateraturik, Tolosaldeko burutza izaten jarraitzea, eta, hasiera-hasieratik, Gipuzkoako hiri-sisteman lerrun handiagoa izatea. Hori horrela, 2005 urtean, bi udalerrien artean etorkizunean 2.400 etxebizitza berri antolatzea jasotzen zen.

Hala ere, 2006-2016 epean, bi herrietako etxebizitza kopuruaren garapena azterturik, esan daiteke egoera erabat desorekatu baten aurrean gaudela: gaur egun, 2017. urtean, Tolosan 2.286 etxebizitza gauzatzeko daude eta, horietatik, 1.282, babesturikoak dira; Ibarra, aldiz, 2010 urtetik aurrera gauzatzeko dagoen etxebizitza kopurua 0 da.

Horrek eragin zuzena izan du Ibarra gazteen migrazioan, eta herrian etxebizitza eskaintzarik ezean, inguruko herrietara bizitzera joan dira, bereziki Tolosara, Anoetara eta Irurara, izan ere, herri horiek, azken urteotan, hazkundera izan dute etxebizitza kopuruan.

Nahiz eta hau ez den momentua Ibarra Plan Orokorren ibilbide luzearen arrazoiak azaltzeko, azpimarratu nahi da Lurralde Plan Partzialaren aurrerakinak eragin zuzena izan zuela Ibarra, 2004-2006 urteetan herrian sortu zen presio urbanistikoan.

Boom urbanistikoaren momentuan Ibarra Udala tramitatzen ari zen Plan Orokorra polemikaz inguraturik egon zen, eta hasierako onarpenik izan ez zuenez 2/2006 lurzorua Legea indarrean sartu baino lehen, egoera erabat aldatu zen eta, kasu askotan, sustatzaileek lur-jabeei erositako lurak bueltatu zizkieten. Geroztik, higiezin burbuilaren fenomenoak eta ziklo ekonomikoak ez dute ahalbidetu lurraren transformaziorik, eta zailtasun handiak ditugu promozioak aurrera ateratzeko gai den agenterik aurkitzen.

Gaur egun, Ibarra Plan Orokorra berriz ere tramitean da eta herriak dituen arazo nagusiei aurre egin nahi die: etxebizitza eskaintza ahalbidetu (eraberritua, babestua, berria) eta bizi-baldintzak hobetu kalitatezko espazio libreak eskuratuz.

Lan horretan, oztopo berri batekin aurkitu gara: bizitegien kuantifikazioa dela-eta, 2016ko urtarrilean indarrean sartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko antolamenduko gidalerroen aldaketa (DOT-LAGaren aldaketa).

LAGaren aldaketa onartu arte, Ibarra udalerrirako gehienez 632 etxebizitza aurreikusten zituen LAGaren bizitegi kuantifikazioak, baina 2016ko urtarrilean onartutako aldaketak kopuru hori 320 etxebizitzara murriztu zuen eta kopuru hori da gaur egun Ibarra Plan Orokorra antola dezakeena.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Eta horretan gabilta, baina egoera kezkarriari aurre egiteko, beharrezkoa izango da antolaturiko etxebizitza kopurua handitzea, epe ertainean benetan eskaintza erreala egoteko Ibarra, izan ere horretarako bada Ibarra lur egokirik.

Aurreko guztia kontuan harturik, honako eskaera hau aurkezten dio Ibarra Udalak Lurralde Plan Partzialari:

ESKAERA

Ibarra, eskualdeko buruetako bat den aldetik, 250 etxebizitza gehiago izan ditzala Tolosaldeko Lurralde Plan Partzialean, etorkizunean egoera orekatzeko eta, Tolosarekin bat, eskualde buru izateko helburua betetzen jarraitzeko.

Horretarako, LAG-en ezarritako CMT osagarrian 250 etxebizitza zehaztea eskatzen dugu, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren bidez antolatu beharreko etxebizitza kopurua zenbatzeko Lurralde-plan Partzialean ezarritako lurralde-oreka estratēgiei lotuta.

Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (6 BILDU eta 3 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENEGOA: Onartzea aurkeztu den eskaera egitea Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa departamentuari.

BIGARRENGOA: Erabaki hau jakinarazitea Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa departamentuari. (E)



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LAUGARRENA:

ONARTZEA IBARRAKO UDALA GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ERAKUNDEEN ARTEKO ESPAZIORA ATXEKITZEKO ERABAKIA.

Gipuzkoako Foru Aldundiak sare bat sortu du herritarren partaidetzarako politikak sustatzeko helburuarekin. Erakundeak eta herritarren partehartzea sustatu eta aldi berean espazio bat sortu nahi da elkarrekiko ikaskuntza egiteko arlo honetan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Foru Dekretuak sortzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko Espazioari atxikitzea eskatzen digu. Atxekimenduak sopsosatuko digu (Foru Dekretuak bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren arabera zehaztutako konpromisoak beregain hartzea):

- a) Arlo politikoan nahiz teknikoan modu aktiboan parte hartzea Espazioko organo edo egituretan esleitutako pertsonen bitartez.
- b) Espazioaren funtzionamendua sustatzea, proposamenen eta ekimenen bitartez.
- c) Foru Aldundiak, tokiko erakundeen mesedetan, sustatuko dituen herritarren partaidetza arloko diru-laguntzen lerroei buruzko iritziak definitzeko eta zehazteko prozesuetan parte hartzea eta eztabaidatzea, betiere Espazioko organo edo egitura eskudunen bitartez.
- d) Proposatzea partaidetzarako programa zehatzak, prestakuntza programak, topaketak, mintegiak eta prestakuntzako beste hainbat jarduera, Espazioko organo edo egitura eskudunek eztabaidatu eta onartu ditzaten.
- e) Gida metodologikoak eta herritarren partaidetzarako onuragarriak izango diren beste edozein baliabide edo tresna proposatzea, bereziki partaidetzazko aurrekontuen ereduak eta estrategiak diseinatzea.
- f) Espazioan ezartzea partaidetza alorreko praktika onak, bertan parte hartuko duten erakundeen ezagutza handitzeko eta herritarren partaidetzako foru, udal eta tokiko erakundeen politikak hobetzeko.

Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (6 BILDU eta 3 EAJ-PNV) honako hau

2017/03/02



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA: Onartzea Ibarra Udalak atxikitzea, Foru Dekretuak sortzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko Espazioari.

BIGARRENGOA: Onartzea eta beregain hartzea Foru Dekretuak bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren arabera zehaztutako konpromisoak.

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri ematea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren Partaidetzarako Erakundearen arduradunei.

LAUGARRENGOA: Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

I. ERANSKINA

----- UDALAK GIPUZKOAKO ACUERDO DEL AYUNTAMIENTO DE ---
LURRALDE HISTORIKOKO ----- DE ADHESIÓN AL ESPACIO
HERRITARREN PARTAIDETZARAKO INTERINSTITUCIONAL DE
ERAKUNDE ARTEKO ESPAZIORA PARTICIPACIÓN CIUDADANA DEL
ATXIKITZEKO ERABAKIA: TERRITORIO HISTÓRICO DE
GIPUZKOA:

(Udalak deseado por el Ayuntamiento) *(Texto)*

2017/03/02



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

nahi duen testua parte hartzearekin duen konpromisoa azaltzen) *presentando su compromiso con la participación)*

Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko espazio bat sortzeari buruzko Foru Dekretua onartu du, bere bigarren artikuluan zehazten duen moduan ondorengo helburuekin:

Asimismo, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha aprobado el *Decreto Foral de creación de un espacio interinstitucional de participación Ciudadana del Territorio Histórico* de Gipuzkoa, con los siguientes objetivos que se concretan en su artículo segundo:

a) Sare bat edo erakunde arteko topaketa espazio bat eratzea Lurralde Historikoko maila anitzeko gobernuen ikuspegitik, batik bat, foru gobernuaren eta tokiko gobernuen ikuspegitik, eta horren helburua herritarren partaidetzarako politikak sustatzea izango da, herritarren eta erakundeen arteko erlazioak indartu daitezten.

a) Articular una red o espacio de encuentro interinstitucional desde la perspectiva de los gobiernos multinivel del Territorio Histórico, especialmente del gobierno foral y de los gobiernos locales, que tenga por objeto impulsar las políticas de participación ciudadana y fortalecer así las relaciones entre la ciudadanía y sus instituciones.

b) Herritarren partaidetzaren arloko erakundeen esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko espazio bat ezartzea, alor horretako elkarrekiko ikaskuntzako erakunde-komunitatea eta hobekuntza instituzionala sustatuta.

b) Establecer un espacio de intercambio de experiencias y buenas prácticas de las distintas instituciones que están presentes en el ámbito de la participación ciudadana, promoviendo una comunidad institucional de aprendizaje recíproco y la mejora institucional en ese ámbito.

c) Vehicular canales de asistencia y



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

c) *Laguntza eta lankidetzak teknikorako bideak hedatzea Espazioan dauden erakundeek betebehar arauemaileak egikaritzeko, araudiak eta ordenantzak onartzeko eta herritarren partaidetzarako metodologiak, prozesuak eta tresnak martxan jartzeko.*

d) *Herritarren Partaidetzako alorrean Foru Aldundiaren diru laguntzen politika zehazten laguntzeko tresna izatea.*

e) *Prestakuntza programak eta jardunaldi espezializatuak sustatzea, baldin eta zeharkako alor honetan eskuduntzak dituzten kargu publiko adierazgarrien eskumen instituzionalak indartzen badituzte eta herritarren partaidetzaren alorreko foru eta udal zuzendari eta teknikarien gaitasun profesionalak garatzen badituzte.*

cooperación técnica para el correcto ejercicio y cumplimiento de las obligaciones normativas, la aprobación de reglamentos, ordenanzas, así como la puesta en marcha de metodologías, procesos e instrumentos de participación ciudadana por parte de las instituciones presentes en el Espacio.

d) *Servir de cauce para ayudar en la determinación de la política de subvenciones de la Diputación Foral en el ámbito de la participación ciudadana.*

e) *Promover programas formativos y jornadas especializadas que refuercen las competencias institucionales de los cargos públicos representativos con atribuciones en esta esfera transversal y desarrollen las competencias profesionales del personal directivo y técnico foral y local en materia de participación ciudadana.*

Udal honen nahia Espazio horren parte izatea izanik Osoko Batzarrari proposatzen zaio atxikimen adierazpen hau onartzea.

Halaber, Foru Dekretuak bere Hirugarren

Siendo el deseo de este Ayuntamiento formar parte de ese Espacio se le propone al Pleno la aprobación de esta declaración de adhesión.

Igualmente, como concreta el Decreto Foral en su Disposición Adicional



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Xedapen Gehigarrian zehaztu moduan, atxikimen honek bere gain konpromiso hartzea eskatzen dio.

Gaia aztertuta zera erabakitzen da:

1. _____ko Udala Foru Dekretuak sortzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko Espazioari atxikitzea.
2. Foru Dekretuak bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren arabera zehaztutako konpromisoak beregain hartzea.
 - a) *Arlo politikoan nahiz teknikoan modu aktiboan parte hartzea Espazioko organo edo egituretan esleitutako pertsonen bitartez.*
 - b) *Espazioaren funtzionamendua sustatzea, proposamenen eta ekimenen bitartez.*
 - c) *Foru Aldundiak, tokiko erakundeen mesedetan, sustatuko dituen herritarren partaidetza arloko diru-laguntzen lerroei buruzko iritziak definitzeko eta zehazteko prozesuetan parte*

Tercera, esta adhesión exige de la aceptación del compromiso.

Analizada la cuestión se decide lo siguiente:

1. **El Ayuntamiento de _____** se adhiere al Espacio interinstitucional de participación ciudadana del Territorio Histórico de Gipuzkoa creado por Decreto Foral.
2. Aceptación de los compromisos concretados por el Decreto Foral en su Disposición Adicional Tercera.
 - a) *Participar activamente a través de las personas asignadas en los órganos y estructuras del Espacio, tanto en el ámbito político como técnico.*
 - b) *Impulsar, a través de propuestas e iniciativas, el funcionamiento del Espacio.*
 - c) *Participar y deliberar a través de los órganos o estructuras competentes del Espacio en los procesos de definición y determinación de los criterios de reparto de las líneas de subvención*



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

hartzea eta eztabaidatzea, betiere Espazioko organo edo egitura eskudunen bitartez.

d) Proposatzea partaidetzarako programa zehatzak, prestakuntza programak, topaketak, mintegiak eta prestakuntzako beste hainbat jarduera, Espazioko organo edo egitura eskudunek eztabaidatu eta onartu ditzaten.

e) Gida metodologikoak eta herritarren partaidetzarako onuragarriak izango diren beste edozein baliabide edo tresna proposatzea, bereziki partaidetzako aurrekontuen ereduak eta estrategiak diseinatzea.

f) Espazioan ezartzea partaidetza alorreko praktika onak, bertan parte hartuko duten erakundeen ezagutza handitzeko eta herritarren partaidetzako foru, udal eta tokiko erakundeen politikak hobetzeko.

g) Espazioaren aurrekontuak ezagutzea eta, behar bada, gai

en materia de participación ciudadana que impulse la Diputación Foral a favor de las entidades locales.

d) Proponer programas concretos de participación, programas formativos, encuentros, seminarios u otras actividades formativas, para que sean debatidos y acordados por los órganos o estructuras competentes del Espacio.

e) Proponer guías metodológicas o cualesquiera otros instrumentos o herramientas que faciliten la participación ciudadana, especialmente diseñar modelos y estrategias de presupuestos participativos.

f) Aportar al Espacio todas aquellas buenas prácticas en materia de participación que puedan enriquecer el conocimiento de las instituciones que formen parte y mejorar las políticas forales o municipales y del resto de entidades locales en materia de participación ciudadana.

g) Conocer y, en su caso, deliberar en torno a los presupuestos del Espacio



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

horren inguruan eztabaidatzea organo edo egitura eskudunen bitartez.

h) Partaidetza alorrean Foru Aldundiak burutuko dituen laguntza tekniko eta lankidetzako prozesuetan udalei eta tokiko erakundeei laguntza ematea, arazoak edo gai irekiak behar bezala identifikatzeko, erregelamendu nahiz ordenantza-tipoak eta proposatutako gida metodologikoak sustatzeko, eta herritarren partaidetzako tokiko politikak hobetzera bideratutako Espazioaren beste edozein ekimen bultzatzeko.

i) Espazioa dinamizatzea egungo egituren bidez, eta foro teknikoak koordinatzea, hala behar bada.

a través de los órganos o estructuras competentes.

h) Colaborar en los procesos de asistencia técnica y cooperación a los municipios y al resto de entidades locales que lleve a cabo la Diputación Foral en materia de participación ciudadana, identificando correctamente los problemas o cuestiones abiertas y promoviendo los reglamentos y ordenanzas-tipo, las guías metodológicas propuestas, así como cualquier otra iniciativa que se impulse en tal Espacio dirigida a mejorar las políticas locales de participación ciudadana.

i) Dinamizar el Espacio a través de las estructuras existentes y coordinar, en su caso, los foros técnicos.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzari erabaki honen berri ematea.

3. Dar cuenta de esta decisión a la Dirección de Participación Ciudadana del Departamento de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad de la Diputación Foral de Gipuzkoa.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BOSGARRENA:

TOLOSALDEKO GILTZARRIAK AURKEZTEN DUEN MOZIOA: NAHI AL DUZU ESTATU BURUJABE BATEKO HERRITARRA IZAN? GALDERAREN INGURUKOA.

Tolosaldeko Giltzarria taldeak honako mozioa aurkezten dio Ibarra Udaleko Udaltzari honek onar dezan:

MOZIOA:

Tolosaldeko Giltzarria herritar dinamika da, Tolosaldeko Gure Esku Dagoen enbor beretik sortua, eta gure herrian ere badu ordezkari zabal bat. Martxoaren 19ko galdeketa antolatzea du xede, erabakitze eskubidea aldarrikatetik egikaritzera pasaz.

Eskualdeko herritar ororen bilgune izan nahi du Giltzarriak, erabakitze eskubidea, emaitzaren gainetik, gizarte kohesioa dagoen tresna egokiena baita. Nolako Euskal Herria nahi dugun erabaki nahi dugu, gure herritik hasita, eskualdearen indarrak, eskualdeko biztanlearen iritzia babesaz.

Udal honek, herritarren ordezkari duen heinean, begi onez ikusten du Martxoaren 19ko galdeketa, eta are gehiago, dei egiten die herritar guztiei bertan parte hartzea, iritzia agertzea. Herri bat garelako, erabakitze eskubidea dugulako eta herritarren garaia delako.

Guztion partehartzea ezinbesteko baldintza da erabakitzeko ariketa bat aurrera eramateko. Guztiok gara giltzarri. Martxoaren 19an, erabaki nahiaren espresio izango gara, ezberdinen arteko topagune, elkarbizitzaren giltzarri.

Europar martxan dabilen tren Euskal Herriko geltokira iritsi da, baita guk gobernatzen dugun herrira ere. Bertara igotzeko gonbitea luzatzen dizuegu herritar guztioi, honako galderaren inguruan zure iritzia ematera:

Nahi al duzu estatu burujabe bateko herritarra izan?

Irudikatu dezagun jende zoriontsua herri libre batean.
Bozkatu, zure iritzia jakin nahi dugu!

Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (6 BILDU eta 3 EAJ-PNV) honako hau

2017/03/02



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Ibarra Udala martxoaren 19an egingo den galdeketaren alde agertzen da eta herritarrei dei egiten die bertan parte har dezaten eta iritzia eman dezaten.

BIGARRENA: Ibarra Udalak ezohiko osoko bilkuran hartu duen erabakia komunikabideetara bidaliko du, bando baten bidez herrian zabalduko du eta udaleko web orrialdean jarriko du martxoaren 9an.

SEIGARRENA:

MARTXOAREN 8KO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA (BILDU KOALIZIOAK ETA EAJ ALDERDIEK AURKEZTUA).

Bildu Koalizioak eta EAJ alderdiak, honako adierazpen instituzionala aurkezten diote Ibarra Udaleko Udaltzari honek onar dezan:

ADIERAZPENA

Joan den urrian egindako Europako Kontseiluko Tokiko eta Eskualdeetako Agintarien Kongresuan (CPLRE) ondorioztatu zen emakumeek behar baino ordezkari gutxiago dituztela udaletan erabaki politikoak hartzeko, eta oztopo desberdinei aurre egin behar dietela tokiko politikan berdintasunezko sarbidea eta partaidetza izateko.

EAEko 2015eko udal-hauteskundeetan izandako emaitzak generoaren ikuspegitik hartzen baditugu kontuan, baieztatu dezakegu 3/2007 Lege Organikoaren eragina islatu dela gure errealtate politikoan; izan ere, gaur egun %41,3 da emakumezko hautetsien portzentaia, hau da, aurreko legegintzaldian baino %2,5 gehiago.

Haatik, jaso ditugun datuei erreparatuz gero, badira oinarrizko desberdintasun batzuk. Esaterako, biztanleria handiena duten hamar euskal herrietatik bi baino ez dira emakumezko alkateak

2017/03/02



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

dituztenak. Are gehiago, gauza jakina da orain arte ez duela hiriburu euskaldun batek ere emakumezko alkaterik izan.

Halaber, 2015ean, eta alderdi politikoen hauteskunde-zerrendei dagokienez, zerrenda horien %32,85tan bakarrik izan da emakumezko bat zerrendaburu. Azkenik, egonkortasunari erreparatuz, emakumeak jeneralean astiroago igotzen dira lidergo postuetara eta denbora laburragoz irauten dute postu horietan. Baina, nolakoa da gure udalerrian dagoen gizon eta emakumeen ordezkariak? Osoko Bilkurak zein Gobernu Batzordeak betetzen dute emakume eta gizonen ordezkariak orekatuari buruz agindutakoa. Informazio batzordeen kasuan, 11 batzordetatik 4tan da emakume bat buru; sei dira parekidetasun-irizpidea betetzen dituztenak.

Jakin-mina sortzen duen beste gai bat da zenbat emakumek eta gizonak egiten dituzten lanaldiak etxean eta etxetik kanpo euren funtzio publikoaz gain; emakumeek zergatik dituzten zailtasun gehiago erabakiak hartzeko postuetara iristeko; zer dela eta egiten zaion zailagoa emakumeari lidergoa lortzea; eta zerk eragiten duen gizonetako egonkortasun luzeagoa izatea udaleko politika-arloan, eta abar.

Honegatik guztiagatik, eta otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 23.artikuluak betetzeko, zeinak hau esaten duen: Euskal herri-aginte guztiek, beren zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatuak kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoaren artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauak neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte, Ibarra Udalak ondorengo gomendioak hartzen ditu bere gain:

1.- Behar diren mekanismoak martxan jartzea emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izan dadin kide anitzeko organoetan, organo aholku-emaitetan eta erabakiak hartzekoetan

2017/03/02



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

(epaimahaietan, auzitegietan, balorazio batzorde teknikoetan, e.a.) eta edozein herri organoetarako izendapenetan.

2.- Udal-programa eta politiketan generoaren ikuspegia inplementatzen eta sustatzen jarraitzea.

3.- Berdintasun-arloko gaikuntza indartzea, Formazio Plan bat eginez, udalarlo guztietako teknikarientzat eta politikarientzat, udal-programa eta politiketan berdintasun-printzipioa txertatzeko teknikari eta politikari horiei formakuntza emateko helburuarekin.

4.- Ahal den neurrian, Berdintasun sailaren aurrekontua urtetik urtera handitzea.

5.- Ibarra Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planean jasota dauden neurriak martxan jartzea.

6.- Partaidetza-prozesuak erraztea ondorengo gaiak indartzeko gune bat antolatzearen gainean eztabaidatzeko eta gogoeta egiteko: berdintasun-politiken eragina eta garapena, emakumeen jabeakuntza pertsonal eta kolektiboa eta generoko rol eta estereotipoak zalantzan jartzea emakume eta gizonen jarrera eta portaera berdinzaleagoak garatzeko.

Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (6 BILDU eta 3 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Onartzea martxoak 8ko adierazpen instituzionala.

BIGARRENA: Erabaki hau Ibarra Udaleko web orrialdean jartzea.

ZAZPIGARRENA **GALDE-ESKAERAK**

Ez dago inolako galde-eskaerarik.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta hogeita zazpi direnean. Nik, behin-behineko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.

2017/03/02